

Euskal Herria Askatu-k Ardanzaren hitzaldia eten zuen Mexikon

ETAk ez duela isilaraziko erantzun zuen EAeko lehendakariak → 7

politika

■ EAJ ez dela HBren «strategietan» sartuko esan du Egibarrek → 6

■ 180 pertona ezagunek sinatu dute HBko Mahai Nazionalaren auzipetzearen aurkako idatzia → 6

gizartea

■ Euroituna izenpetzeko eskatuko dio Eskualdeen Arteko Biltzarrak Jospini → 11

■ EUDELen aldeko apustua egiten duela berretsi du GBBk, UEMAren kalterako → 13

estatuak

■ PSOEren kongresua Joaquin Almunia izendatuko dute gaur Felipe Gonzalezen ordezko → 16

kirola

■ Jokatzeko aukera gehiago ikusten duelako dator Lasa Athleticera → 20

Elkarrizketa

ETAren kontra «demokrazia gehiago» behar dela dio Joaquin Gimenezek

Kale borrokarekin lotutako auziak Entzutegi Nazionalera eramatearen kontra dago

■ BIZKAIKO Probintzi Auzitegiko lehendakariaren iritziz, «bide okerra da» kale borrokarekin lotutako auzi guztiak Entzutegi Nazionalera eramatea. Joaquin Gimenezek EGUNKARIari emandako elkarrizketan dioenez, «goi agintarien arte-

ko bilera bat egon da eta erabaki politikoa hartu dute», baina bere ustez, «zuzena ez den aukeraren alde egin dute». Magistratuari iruditzen zaio bide hori sistema judizialarekiko konfiantza eza estaltzen duen «burugabekeria» dela eta auzi ho-

riek Euskal Herrian epaituak izan daitezkeen defenditzen du. Horretaz gain, «terrorismoa ez dena terrorismotzat jotzea» kontraesana dela dio. Bestetik, ETAren kontra demokrazia gehiago behar dela eta ez salbuespen gehiago adierazi du. → 8-9

Eskuz Binakako Txapelketako finala

JAGOBA MANTEROLA



Kolorerik ez

■ RETEGI II.AK eta Lasa III.ak erraz, oso erraz, irabazi zieten Unanueri eta Errandoneari atzo Zarautzen. Euskadiko Eskuz Binakako Txapelketako finala zegoen jokoan Aritzbatalde pilotalekuan, eta, UPNko gobernuaren presioek finala ilundu bazuten ere, Inaxio Errandonearen eta Mikel Unanueren joko

kaskarrak zapuztu egin zuen ikusgarria izan zitekeen finala. 22-4 izan zen azken emaitza. Argazkian pozik ageri diren bi txapeldunek denboraldiko bikote onena izan direla erakutsi dute, atzokoa eta Espainiako txapelketa irabazi baitituzte nagusitasun osoz.

→ 25

Donostian 4.000 lagun presoak Euskal Herriratzearen alde

■ PSE-EE, HB, EAJ, EA eta IUko zinegotziek pankarta bat eraman zuten manifestazioan → 10



Espainiako Gerra Zibila
Euskal Herrian

Bilbo, azken erresistentziaen porrota

Burdinazko Hesia

gainditu eta Euskal Armada Bizkaitik egotzi zuten faxistek